


# SoftPower

**arte y tecnologías en la era biopolítica**  
*arte eta teknologiak aro biopolitikoan*

*Del 1 de octubre al 6 de noviembre 2009, Vitoria-Gasteiz*  
*2009ko urriaren 1etik azaroaren 6ra, Vitoria-Gasteiz*



Proyecto Amarika Proiektua  
Comisariado | Komisarioa: María Ptqk  
[www.amarika.org/softpower](http://www.amarika.org/softpower)

## **Conferencia de prensa**

miércoles 30 de septiembre, 11h30 - Sala América, Vitoria-Gasteiz

***Prentsaurrekoa***

*irailaren 30ean, asteazkenean, 11h30, América Aretoa, Vitoria-Gasteiz*

## **Aurkezpena | Presentación**

***“Soft Power” bioteknologiari buruzko ekimen kulturalen programa da. Zientziaren adar hau, injinerutza genetikoak, industria farmazeutikoa edota nekazaritza transgenikoaren aurrerapenekin, egunerokoan betirako murgildu da. Artista, pentsalari eta aktibisten lanetatik abiatuta, “Soft Power”-ek sormenaren alor berri honen zehar ibilbide berria proposatzen du, non artea eta kultura, zientziarekin, teknologiarekin, ekonomia globalarekin eta filosofia politikoarekin topatzen diren. Programak erakusketa bat, hitzaldiak, dokumentalen emanaldiak eta performantzeak barne sartze ditu.***

*Egunero genetikoki aldarazitako elikagaiak jaten ditugu, hormona edo antibiotiko hondarrak edo merkatuan erakargarriago egiten dituzten gai kimikoak dituztenak. Protesien, inplanteen, kirurgia platikoaren, adintzearen kontrako tratamenduen eta kosmetikoen bidez diseinatzen ditugu geure gorputzak. Geure gogoak eta geure aldarazten ditugu farmakoak, droga sintetikoak eta depresioaren kontrakoak direla medio, baita ere geure sexualitatea, Viagra edo pilula antikonzeptiboa bezalako prestakin hormonalekin edo testosterona tratamenduekin. 2003an, Human Genome Project delakoaren barruan, giza genomaren dekodetzea osatu zen. Horrek Biologiaren Mendea izendatu denaren hasiera markatu zuen: Naturaren mugak eta biziaren ideia bera auzitan ipiniko dituen aro berri bat.*

*Bioteknologiak, egoaren diseinuaren kulturaren mamituta, subjektibotasun programagarriaren antzinako ametsera itzularazten gaitu, genetikak eta biziaren zientziak zuzendutako patu baten posibilitatera. Goi teknologiatik gizadi baten promesarekin, kapitulu berri bat ireki du Michel Foucaultek hirurogeita hamarreko hamarkadan biopolitikaren kontzeptuari buruz hasitako amaigabeko eztabaidan: gorputzak, gogoak eta bizitzaren alderdi guztiak -batez ere subjektibotasunaren eremuarekin zerikusirik daukatenak- kontrolatuz, pertsonak gobernatzea. Gaur egun, cyborgaren mitoa bueltatzen ari da, bioindustriaren merkatu globalak kontrolaturiko eguneroko kontsumo gaitan disolbatua. Ikerkuntza zentroek, zelulak, haziak, giza hazia, obuluak, odola, organoak edo ehunak bezalako baliabide biologikoak gorde eta sailkatzen dituzte. Beste alde batetik, jabetza intelektualeko legeek guztion ondaretik kanpo uzten dituzte, haiek patentatu, manipulatu eta osasun zentroetan edo supermerkatuetako apaletan merkaturatzen dituzten multinazional farmazeutikoen edo nekazaritza-elikagaietako mesedetan. Biotech-aren aroan, gu cyborgok ez gara teknika eta protokolo zientifikoen multzo baten emaitza bakarrik, baizik eta mundu osora hedatutako kultura kodeen eta gizarte eta ekonomia harremanen bilduma bat. Narratiba biopolitikoak, azken hamarkadan artea ere lotu zaiona.*

*“Soft Power”, proposamen gisa, hain zuzen ere toki horretan kokatzen da, biopolitikaren hizkuntza berriak arakatzeko egungo arte jardunen tokian. Jardun hauek artearen eta zientziaren diziplina arteko elkartzea ikertzen dute, baina ikerketa zientifikoa gaur egun dituen egiazko baldintzak ere bai: bizimoduetan duen eragina, mobilizatzen dituen irudimenaren mailak eta bioindustriaren nazioarteko sareak.*

**“Soft Power” es un programa de actividades culturales sobre biotecnología, una rama de la ciencia que, con los avances de la ingeniería genética, la industria farmacéutica o la agricultura transgénica, ha entrado definitivamente en la vida cotidiana. A partir de las obras de artistas, pensadores y activistas, “Soft Power” ofrece un recorrido por este nuevo territorio creativo en el que el arte y la cultura se encuentran con la ciencia, la tecnología, la economía global o la filosofía política. El programa incluye una exposición y una serie de conferencias, documentales y performances.**

Cada día consumimos alimentos genéticamente modificados, con restos de hormonas, antibióticos o sustancias químicas que los hacen más atractivos en el mercado. Diseñamos nuestros cuerpos mediante prótesis, implantes, cirugía plástica, tratamientos anti-edad, cosméticos. Modificamos nuestra psique y nuestro estado de ánimo con fármacos, drogas sintéticas y anti-depresivos y nuestra sexualidad con preparados hormonales como Viagra, la píldora anticonceptiva o tratamientos de testosterona. En 2003, en el marco del Human Genome Project, se completó la decodificación del genoma humano señalando el inicio de lo que ya se conoce como el Siglo de la Biología, una era llamada a cuestionar los límites de lo natural y la idea misma de lo vivo.

La biotecnología, encarnada en la cultura del *diseño del yo*, nos devuelve al viejo sueño de la subjetividad programable, a la posibilidad de un destino dirigido por la genética y las ciencias de la vida. Con su promesa de una humanidad high-tech, abre un capítulo nuevo en la interminable discusión inaugurada por Michel Foucault en la década de los setenta sobre el concepto de biopolítica: el gobierno de las personas mediante el control de los cuerpos, las mentes y todos los aspectos de la vida, especialmente los que tienen que ver con la esfera de la subjetividad. Hoy, el mito del cyborg regresa diluido en productos de consumo cotidiano controlados por el mercado global de la bioindustria. Los centros de investigación almacenan y clasifican recursos biológicos como células, semillas, semen, óvulos, sangre, órganos o tejidos. Por su parte, las leyes de propiedad intelectual los excluyen del patrimonio común en beneficio de multinacionales farmacéuticas y agro-alimentarias que los patentan, manipulan y distribuyen en los centros de salud o las estanterías del supermercado. En la era del biotech, *nosotros/cyborgs* no somos sólo el resultado de un conjunto de técnicas y protocolos científicos sino un compilado de códigos culturales y relaciones sociales y económicas de alcance global. Una narrativa biopolítica a la que, en la última década, se ha sumado también el arte.

“Soft Power” como propuesta se ubica precisamente en ese lugar, el de las prácticas artísticas contemporáneas que exploran los nuevos lenguajes de lo biopolítico. Prácticas que investigan el encuentro interdisciplinar entre arte y ciencia pero también las condiciones reales de las investigación científica hoy: su impacto en las formas de vida, las categorías de la imaginación que moviliza y las redes internacionales de la bioindustria.

# ***Egitaraua* | Programa**

## ***Erakusketa* | Exposición**

**Subrosa > Bureau d'Etudes > Boryana Rossa > Rachel Mayeri > Sally Gutierrez**

*2009ko urriaren 1etik azaroaren 6ra, Amárica Aretoa*  
del 1 de octubre al 6 de noviembre 2009, Sala Amárica  
*Asteartetik larunbatera* | de martes a sábado: 11:00-14:00 // 18:00-21:00  
*Igande eta jai egunetan* | domingos y festivos: 11:00-14:00

*Inaugurazioa* | Inauguración  
*urriaren 1ean, ostegunean, 19:00etan, Amárica Aretoa. Plácida Yeyé Djarekin*  
jueves 1 de octubre, 19h00, Sala Amárica. Con DJ Plácida Yeyé

## ***Hitzaldiak, emanaldiak eta performantzeak* | Conferencias, proyecciones y performances**

***Erwin Wagenhofer-en “Guk mundua elikatzen dugu” dokumentalaren emanaldia* | Proyección del documental “Nosotros alimentamos el mundo” de Erwin Wagenhofer**  
*2009ko urriaren 8an, ostegunean, 19:00etan, Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegian*  
jueves 8 de octubre 2009, 19h00, Archivo del Territorio Histórico de Álava

***Marie-Monique Robin-en “Mundua Monsantoaren arabera” dokumentalaren emanaldia* | Proyección del documental “El mundo según Monsanto” de Marie-Monique Robin**  
*2009ko urriaren 15an, 19:00etan, Lurralde Historikoaren Agiritegian*  
jueves 15 de octubre 2009, 19h00, Archivo del Territorio Histórico de Alava

***Bureau d'Etudes: hitzaldia eta “La Bella Durmiente” argitalpenaren aurkezpena* | Bureau d'Etudes: conferencia y presentación de la publicación “La Bella Durmiente”**  
*2009ko urriaren 23an, ostegunean, 19:00etan, Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegian*  
viernes 23 de octubre 2009, 19h00, Archivo del Territorio Histórico de Alava

***Subrosa: hitzaldia* | Subrosa: conferencia**  
*2009ko urriaren 29an, ostegunean, 19:00etan, Montehermoso Kulturunean*  
jueves 29 de octubre 2009, 19h00, Centro Cultural Montehermoso Kulturunea

***Subrosa performance: “Epidermic! DIY zelula- laborategia”* | Subrosa: performance “Epidermic! Laboratorio de células DIY”**  
*2009ko urriaren 30ean, ostegunean, 17:00etatik aurrera, Amárica Aretoan*  
viernes 30 de octubre 2009, a partir de las 17h00, Sala Amárica

***Beatriz Preciado: hitzaldia eta “Testo yonki” liburuen aurkezpena* | Beatriz Preciado: conferencia**

**y presentación de “Testo Yonki”**

*2009ko azaroaren 6an, ostiralean, 19:00etan*

*, Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegian*

viernes 6 de noviembre 2009, 19h00, Archivo del Territorio Histórico de Alava.

***Erakusketa dokumentala* | **Exposición documental****

2009ko azaroaren 26tik 2010eko urtarrilaren 15ra. Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegian

26 noviembre 2009 - 15 enero 2010. Archivo del Territorio Histórico de Alava

Sala América Aretoa: Plaza Amárica 4, Vitoria-Gasteiz

Archivo del Territorio Histórico de Alava / Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegian: Avenida Miguel De Unamuno 1, Vitoria-Gasteiz


Centro Cultural Montehermoso / Montehermos Kulturunea: c/ Fray Zacarías 2, Vitoria-Gasteiz

# Erakusketa | Exposición

Subrosa / “Celltrack. Mapping the Appropriation of Life Materials”

>> Instalación

2009ko urriaren 1etik azaroaren 6ra, Amárica Aretoa  
del 1 de octubre al 6 de noviembre 2009, Sala Amárica



“Celltrack. Mapping the Appropriation of Life Materials” lanak industria teknologikoa materia biziaz zelan jabetzen den aztertzen du. Estatu Batuetako Patente Legea bezalako estatu arautegiek eta TRIPS\* bezalako nazioarteko itunek ezartzen dutenez, giza geneak patentatu eta ondare komunitik salbuetsi daitezke baldin eta “asmatzaileak” “berrikuntza”, “ebidentziarik eza” eta “erabilgarritasuna” frogatzen baditu. Ondorioa honakoa da: gaur egun giza genetikaren sekuentzia batzuk farmazia enpresenak eta ikerketa zentro pribatuena dira.

Injinerutza genetikoa eta enbrioiei buruzko ikerkuntzak, patenteei buruzko legedien laguntzaz, munduko ondare genetikoa salgai jartzeko bidea erraztu dute. Estatu Batuetan 1997an hasi zen enbrioizko zelula amekin ikertzen; horrek eztabaida handia piztu du: bioetikako adituek, buruzagi erlijiosoek, talde feministek, medikuek, zientzialariek, farmazia enpresen zuzendariek eta herritarrek kontrako jarrerak dauzkate emakumeen gorputzetik datozen ehunak, hala nola obulua, plazentak, fetuak edo zilbor hesteko odola erabiltzeari buruz Enbrioiei buruzko ikerkuntzaren aurkako argudio nagusiak abortuaren aurka erabilitakoen oso antzekoak dira: enbrioien manipulazioak enbrioia suntsitzen du, eta hura balizko gizakitzat jotzen da.

“Cell Track”ek bestelako ikuspuntua eranstean dio eztabaidari. Zelula amekin ikertzeak argi eta garbi banantzen ditu enbrioia sortzen dituzten gorputzak (emakumeak edo animalia emeak) eta haiengandik eratorritako farmazia eta medikuntza produktuak; azkenak industria bioteknologiko sortu berriaren “lehengai” bihurtzen dira. Jabego intelektualari buruzko legeei esker, injinerutza genetikoa emaitzak patentatu eta pribatizatu egiten dira. Farmazia korporazioek xurgatu eta beste edozein produktu komertzialen parean jartzen dira, hots, eskaintza eta eskariaren lege pean jartzen dira. Horrela egun mundu osoan hedatu den injinerutza genetikoa industriaren “urre berria” bihurtzen dira; industria horrek DNA sekuentziak, gene manipulatuak, zelula amen lerroak, organismo transgenikoak, klonazio edo in vitro intseminazio prozesuak merkaturatzen ditu. Pribatizatzen denez, enbrioiei buruzko ikerkuntza ezagutza trukearen ondare komun eta asketik kanpo geratzen da. Gure ondare genetikoa jabeak ez izateaz gain, subjektu burujabe gisa gizateriaren garapen zientifikoan parte hartzeko aukera ukatzen zaigu.

Subrosa taldea 1997an sortu zen eta bere burua kultura ikertzaileek osatutako ugal daitekeen zelula ziberfeminista bezala definitzen du. Subrosak artea, aktibismoa eta politika uztartzen ditu, kritikoki teknologiaren, zientziaren, generoaren eta

*kapital globalaren elkarguneak eta zirkuitu integratuan emakumeen gorputz, bizitza eta lanarentzat dauzkaten ondorioak miazteko. Subrosak kokatutako politika feminista modu bat darabil, elkarbizitzarako gaitasuna, autodeterminazioa eta itunak eta koalizioak baiesteko nahia uztartzen ditu eta hartzen dituen formak artelanak, kanpaina aktibistak, ikerketa proiektuak, argitalpenak, komunikabide edo eztabaida publikoetako parte hartzeak dira. Egungo taldekideak Faith Wilding eta Hyla Willis dira.*

<http://www.cyberfeminism.net/>

“*Celltrack. Mapping the Appropriation of Life Materials*” analiza el fenómeno de la apropiación de la materia viva por parte de la industria biotecnológica. Normativas estatales como la Ley de Patentes de los Estados Unidos y acuerdos internacionales como el TRIPS establecen que los genes humanos pueden ser patentados y excluidos del patrimonio común siempre que el “inventor” demuestre “novedad”, “no-evidencia” y “utilidad”. El resultado es que algunas de las secuencias genéticas humanas son hoy propiedad de empresas farmacéuticas y centros privados de investigación. La ingeniería genética y la investigación embrionaria, con el apoyo de las legislaciones sobre patentes, han allanado el camino para la mercantilización del patrimonio genético del mundo. La investigación con células madre embrionarias, iniciada en 1997 en los Estados Unidos, ha provocado una amplia controversia en la que especialistas en bioética, líderes religiosos, grupos feministas, médicos, científicos, directores de empresas farmacéuticas y ciudadanos mantienen posiciones distintas respecto al uso de los tejidos provenientes del cuerpo de las mujeres, como los óvulos, las placentas, los fetos o la sangre del cordón umbilical. Los principales argumentos contra la investigación embrionaria son muy similares a los que se utilizan en contra del aborto: la manipulación embrionaria destruye el embrión, siendo éste considerado como un ser humano en potencia.

“Cell Track” añade a este debate un punto de vista diferente. La investigación con células madre embrionarias conlleva una clara separación entre los cuerpos que generan los embriones (hembras humanas o animales) y los productos farmacéuticos y médicos derivados de ellos, que se convierten en la “materia prima” de la emergente industria biotecnológica. Gracias a las leyes de propiedad intelectual, los frutos de la ingeniería genética son patentados y privatizados. Son absorbidos por las corporaciones farmacéuticas y asimilados a cualquier otro producto comercial, es decir, sometidos a las leyes de la oferta y la demanda. Se convierten así en el “nuevo oro” de la industria de la ingeniería genética extendida hoy por todo el mundo, que fabrica y pone en el mercado secuencias de ADN, genes manipulados, líneas de células madre, organismos transgénicos, procesos de clonación o de inseminación in vitro. Al ser privatizada, la investigación embrionaria queda excluida del patrimonio común y del libre intercambio de conocimiento. No sólo no somos dueños (dueñas) de parte de nuestro patrimonio genético sino que, además, se nos priva de la posibilidad de participar en el desarrollo científico de la humanidad como sujetos soberanos.

El colectivo Subrosa, creado en 1997, se define como *una célula ciberfeminista reproducible* integrada por investigadoras culturales. Subrosa combina el arte, el activismo y la política con el fin de explorar críticamente las intersecciones entre tecnología, ciencia, género y capital global y sus consecuencias para los cuerpos, las vidas y el trabajo de las mujeres en el circuito integrado. Subrosa practica una forma de política feminista *situada* que combina la convivialidad, la auto-determinación y el deseo de afirmar alianzas y coaliciones y que toma la forma de piezas de arte, campañas activistas, proyectos de investigación, publicaciones, intervenciones en los medios o debates públicos. Los miembros actuales del colectivo son Faith Wilding y Hyla Willis.

<http://www.cyberfeminism.net/>

## Boryana Rossa / “Bootleg Garden”

### >> Instalación

2009ko urriaren 1etik azaroaren 6ra, Amárica Aretoa  
del 1 de octubre al 6 de noviembre 2009, Sala Amárica



*Bulgaria nekazal herria eta COMECONeko -1949tik 1991ra izan zen herri sozialisten erakundea- fruta eta barazki esportatzaile handienetakoa izateagatik da ezaguna. Dena dela, gaur egun Bulgariako merkatuan saltzen diren frutak eta barazkiak Turkia, Grezia, Italia, Peru eta Suediatik datoz. Bulgariako ohiko produktuak ere, hala nola tomateak, luzokerrak edo apioa, beste herrietatik inportatzen dira. Ezer gutxi dator bertako ekoizleengandik, batez ere hiriguneetan. “Bootleg Garden” aldi berean ikerketa proiektua, etxeko lorategi pirata eta instalakuntza da, eta Bulgariako egoera ekonomikoari, nekazaritzaren dimentsio bioetikoari eta nekazaritza teknologiek mundu osoko tokiko merkatuetan dauzkaten ondorioei buruzko hausnarketa da.*

*Boryana Rossa bulgariar artista eta sendatzailearen lana arte elektronikoaren, zinemaren, bideoaren, performancearen eta argazkiaren arteko elkargunean kokatzen da. 2004an, Oleg Mavromatti artista eta errealizadorearekin batera, UTRAFUTURO taldea sortu zuen; bertan zientzia eta teknologiaren gizarte, politika eta etikako ondorioekin engaiatutako sortzaileak biltzen dira. Gaur egun, New Yorken bizi da eta bertan Corpus Extremus (Life+) arte eta biologiari buruzko sendatze proiektua garatu eta zinema sozialistaren historiaren bidez ekialdeko Europako herrietako emakumeen burujabetzeari buruzko PhDa bukatzen ari da.*

<http://www.roboriada.org/boryana/>

Bulgaria es conocida por ser un país agrícola y uno de los mayores exportadores de fruta y verduras del COMECON, la organización de los países socialistas que existió de 1949 a 1991. Sin embargo, la fruta y las verduras que se venden actualmente en el mercado búlgaro vienen de Turquía, Grecia, Italia, Perú y Suecia. Incluso los productos tradicionales de Bulgaria, como los tomates, los pepinos o el apio son importados de otros países. Muy poco viene de productores locales, especialmente en las zonas urbanas. “Bootleg Garden” es al mismo tiempo un proyecto de investigación, un jardín doméstico pirata y una instalación que reflexionan sobre la situación económica en Bulgaria, la dimensión bioética de la agricultura y el impacto de las tecnologías agrícolas en los mercados locales de todo el mundo.


El trabajo de la artista y curadora búlgara Boryana Rossa se ubica en la intersección entre arte electrónico, cine, vídeo, performance y fotografía. En 2004, junto con el artista y realizador Oleg Mavromatti crea el grupo UTRAFUTURO, que reúne a creadores comprometidos con las implicaciones sociales, políticas y éticas de la ciencia y la tecnología. En la actualidad, vive en Nueva York donde desarrolla el proyecto curatorial sobre arte y biología Corpus Extremus (Life+) y finaliza su PhD sobre la emancipación de las mujeres en los países de Europa del Este a partir de la historia del cine socialista.

<http://www.roboriada.org/boryana/>

## **Bureau d'Etudes / “Biocracia”**

### **>> Instalación**

2009ko urriaren 1etik azaroaren 6ra, América Aretoa  
del 1 de octubre al 6 de noviembre 2009, Sala América



Mapa geografikoek espazioan orientatzeko balio dute; antolakuntza mapek, hala nola Bureau d'Etudes taldearenek, ordea, gizarte edo ikur konplexutasunean orientatzeko balio dute. Haietan ez dago latituderik, ez longituderik, ez teknika topografikorik. Hala ere, “iparrorratz-irudi” mota horrek gizarte antolakuntza egituratzen duten koordenatu ikusezinak ezagutzen uzten du: indar harremanak, interes itunak edo zeharkatzen duten justizia, erakunde edo finantza botereen sarea.

Erakusketa honetan aurkeztutako hiru mapek egungo industria bioteknologikoaren kartografia egiten dute, elikadurari eta nekazaritzako elikagaien sektoreari, bizi estiloari eta kontsumo ohiturei, eta Europar Batasuneko erakunde eta arauari dagokienez. Mapa horiek marrazten duten lotura, interes eta botere eta informazio fluxuen sareak agerian uzten du “bizien teknologia” deitutakoen benetako irismen ekonomiko eta politikoa.

### **Bureau d'Etudes / “Animalia eta landare programazioa” (2006, 2009an berrikusia)**

Mapa honek aldi berean Frantziako animalia eta landareei buruzko politika eta hura telekomunikazioen eta informatizazioaren bidez kontrol sistemetan sartzeko modua erakusten ditu.

### **Bureau d'Etudes / “Niaren ekonomia” (2006, 2008 eta 2009an berrikusia)**

Mapa honen ikuspegia ez da zenitala, kartografia klasikoan bezala, pertsonala baizik, eta kartografoak berak bere buruari egindako galderen bidez adierazten da: “non nago?”, “zelan eragiten diote nire ikuspuntuak eta nire bizi aukerak nagoen inguru sozial, psikiko edo ekonomikoari?”.

### **Bureau d'Etudes / “Biokrazia. Nekazaritzako elikagaien sektorearen boterea Europan” (2009)**

Mapa honek nekazaritzako elikagaiei dagokienez Europar Batasunaren politika ildo nagusietako eragin taldeen sareak aurkezten ditu.

Bureau d'Etudes talde kontzeptualaren lanak artea, teoria eta ikerketa nahasten ditu eta batez ere kultura esparruetan, aktibisten edo unibertsitarioen artean zabaltzen dituzten munduko botere sareei buruzko kartografiatan agertzen da. Honakoak dira haien proiektuetako batzuk: “Université Tangente” ikerketa aserako plataforma; “Laboratory Planet”, mapetako informazio kontzeptualak euren ekintza zentroei buruzko datu geokokatuei lotzen dizkien online datu basea; eta Ewen Chardronnetekin batera sortutako “La Planète Laboratoire” egunkaria, zientziaren filosofiari eta kritika

*teknologikoari buruzkoa. Hurbilketa teorikoen mugen jakitun, landa inguruneko "komuna experimental" proiektua ere abiarazi dute; handik kultura/nekazaritza/gizartea egituraketa eta "laborategi bihurtutako planeta" baten antolakuntza irrazionalari eman dakizkiokeen erantzunak ikertzen dituzte.*  
<http://utangente.free.fr/>

A diferencia de los mapas geográficos, que sirven para orientarse en el espacio, los mapas de organización como los del colectivo Bureau d'Etudes, sirven para orientarse en una complejidad social o simbólica. En ellos, no existen latitudes, ni longitudes, ni técnicas topográficas. Sin embargo, este tipo de “imágenes-brújula” permiten identificar las coordenadas invisibles que estructuran una organización social: las relaciones de fuerza, las alianzas de intereses o el entramado de poderes jurídicos, institucionales o financieros que la atraviesan. Los tres mapas que presentan en esta exposición cartografían la actual industria biotecnológica en relación con la alimentación y el sector agroalimentario, con los estilos de vida y los hábitos de consumo, y con las instituciones y normas de la Unión Europea. Estos mapas dibujan un entramado de vínculos, intereses y flujos de poder e información que pone de manifiesto el verdadero alcance económico y político de las llamadas “tecnologías de la vida”.

#### **Bureau d'Etudes / “Programación animal y vegetal” (2006, revisado en 2009)**

Este mapa muestra simultáneamente la política animal y vegetal en Francia y su integración en los sistemas de control mediante las telecomunicaciones y la informatización.

#### **Bureau d'Etudes / “Economía del yo” (2006, revisado en 2008 y 2009)**

La perspectiva de este mapa no es cenital, como en la cartografía clásica, sino personal, expresado en las preguntas que se hace el propio cartógrafo: “¿dónde estoy?”, “¿cómo afecta mi punto de vista y mis opciones de vida al entorno social, psíquico o económico en el que me encuentro?”.

#### **Bureau d'Etudes / "Biocracia. El poder del sector agro-alimentario en Europa" (2009)**

Este mapa presenta las redes de grupos de influencia en las grandes líneas políticas de la Unión Europea en materia agroalimentaria.


El trabajo del grupo conceptual Bureau d'Etudes, que mezcla arte, teoría e investigación, se manifiesta sobre todo en sus cartografías sobre las redes de poder en el mundo que difunden en ámbitos culturales, activistas o universitarios. Otros de sus proyectos son la plataforma de investigación independiente “Université Tangente”; “Laboratory Planet”, una base de datos online que conecta las informaciones conceptuales de los mapas con datos geolocalizadas sobre sus centros de acción; y el periódico de filosofía de la ciencia y crítica tecnológica “La Planète Laboratoire”, fundado junto a Ewen Chardonnet. Conscientes de los límites de las aproximaciones teóricas, han iniciado así mismo un proyecto de “comuna experimental” en el medio rural desde la que investigan la articulación cultura/agricultura/sociedad y posibles respuestas a la organización irracional de “un planeta convertido en laboratorio”.

<http://utangente.free.fr/>

## Rachel Mayeri / “Soft Science”

>> video

2009ko urriaren 1etik azaroaren 6ra, Amárica Aretoa  
del 1 de octubre al 6 de noviembre 2009, Sala Amárica



“Soft Science”k bideo-bitxikeria bilduma bat biltzen du; artistak eta zientzialariek sortu dituzte eta Rachel Mayerik hautatu ditu. Hautaketak honako ideian oinarritzen da: zientziaren diskurtsoa narratiba bezala aztertu daiteke -eta aztertu behar da, hots, kultura eraikuntza edo irudi sorta bezala, zeinean objektiboa subjektiboarekin nahasten baitak, zientifikoa kulturalarekin eta errealtatea fikzioarekin. Genetika, farmazia edo ekologiari buruz bildutako bideoek masa-komunikabideetan agertzen ez diren ezohiko ikuspuntu eta metodologiak ematen dituzte.

“Soft Science”ren ikuspegi estetiko eta kontzeptuzkoa beren-beregi zinema aretoetan edo telebistan erakutsi ohi diren zientzia-dibulgazioko dokumentalen generoaren antipodetan kokatzen da. Euren itxurazko arrazionaltasunaren atzean, holako ikus-entzunezko ekoizpenak ere munduari, aurrerapenari eta inguruneari buruz aldeztu aurretik hartutako jarreraren emaitza izaten dira, eta narrazio, ekoizpen ondoko eta fikziozko elementu asko dauzkate. Mayeriren hautaketak, halaber, zalantzan jartzen ditu sci-arten (artearen eta zientziaren arteko uztarketako sormen esperimentuak) egungo eremua eta zientzia eta teknologia garapenei buruzko ikuspegi kritiko oro ezabatuz haiek idealizatzeko joera.

Rachel Mayeri artista eta Media Studieseko komisarioa eta irakaslea da Kaliforniako Harvey Mudd Clollegen. Bideo edo instalakuntza estiloko haren lanek zientzia, arte eta gizartearen arteko uztarketa miazten dute eta, besteak beste, Pacific Film Archiven (Berkeley, Kalifornia), PSI/MOMAn (New York) eta ZKMn (Karlsruhe, Alemania) erakutsi dira. Bideo haren azken lanen artean honakoak daude: “The Anatomical Theater of Peter the Great” (1999), “Biospheria: An Environmental Opera” rako animazioak (2001) eta “The Electropathic Sanitarium” (1992).

<http://www.soft-science.org/mayeri.html>

\*\*

### “Soft Science”, Rachel Mayeri (2004, 115min, JB ingelesa)

Honakoak dira “Soft Science”n batutako bideoak. Denak jarraian ikusi edo DVDaren menu orokorrean nahi duzun lana hauta dezakezu.

### “It Did It”, Peter Brinson (2000, 00:17:00)

Peter Brinsoni depresioa diagnostikatu zaio eta “It Did It” lanean Prozac bidezko trataera bitarteko esperientzia kontatzen du berak. Brinsonen, bere burua ebaluatzeko eta antidepresiboen erabilera bere aldaritari eta aldariteak bere narrazioari eragiteko modua aztertze metodo zientifikoa darabil: galdera / hipotesia / ikerketa / esperimentazioa / datuen erregistroa / ondorioa / berrikusketa.

**“Bug Girl”, Su Rynard (2003, 00:05:45 )**

“Blue Girl” alegia ekologikoa da, naturan, biologian eta kontzientzian zehar egindako sarbide-bidaia. “Blue Girl”en elementu naturalak eta artifizialak uztartzen dira naturaren ikusizko simulazioak sortzeko, zientzia museoetako ohiko estetikan inspiratuz; haietan, gizakia ingurumenetik kanpoko eragile gisa agertzen da, eta ez haren baitako organismo gisa.

**“Re-Animation 3, 4 & 2”, Kaipo Newhouse (2003, 00:01:30 )**

Euli, inurri eta kakalardoehunaka irudik sortutako erretratu biziduna.

**“Ameising 1”, Sean Dockray (2003, 00:02:00)**

Dean Dockrayek kontatzen du, Los Angelesera aldatu zenean, batez ere gauza bik eman ziotela atentzioa: trafikoak eta inurriek. “Ameising”ek argentinar inurriek lurrian inurritegiko beste kideek, janari hondarrak edo itzulerako bidea adierazteko, utzitako feromona aztarnei jarraitzeko egindako joan-etorriak dokumentatzen ditu. *“Lan estetiko bihurtutako prozesu semiotiko biokimikoa, marrazkiaren, idazketaren eta arkitekturaren arteko erdibidean”.*

**“Stories from the Genome: An Animated History of Reproduction”, Rachel Mayeri (2003, 00:15:00)**

“Stories from the Genome” 2003an giza genoma deskodetu zuen injinerutza genetikoko enpresako zuzendariari buruzko dokumentala da. Protagonista deskodetutako genoma berea dela jabetzen denean, bere buruaren klonen kolonia sortu eta bere klonazio esperimenduaren zorigaitzaren eta garaietan zehar nekez gertatuko diren giza bilakaerari buruzko zenbait teoriaren artean mugitzen da. “Stories from the Genome” Celera Genomicseko zuzendari Craig Venter zientzialariaren benetako istorioan oinarritzen da; Venterrek bere material genetikoa erabili zuen giza genoma deskodetzeko, Human Genome Projecten barruan.

**“I Am Today's Lesson Plan”, Torsten Z. Burns & Darrin Martin (2004, 00:10:30)**

“I Am Today’s Lesson Plan”ek espekulazioko zientzia fikzioa eta hezkuntzako, kirurgia psikikoko eta gorputz terapiako praktikak nahasten ditu. Gorputz eta buruko erronka berrien bila, *“tutoretza koreografiatu”* horietako partaideek egoera paranormalekin, sexuen arteko dinamikekin, ebaluazio sasi-zientifikoko metodoekin, integrazioko saio performatiboekin eta antzerki bihurtutako terapia erregresiboekin esperimentatzen dute. *“Bilakaera estra-ebolutiboari buruzko abentura episodikoa”*, Pacific Film Archiveko Steve Seiden arabera.

**“The Bats”, Jim Trainor (1998, 00:08:00)**

“The Bats” animazio lana da, eta bertan, ipuin dokumental gisa, saguzar batek XIV. mendeko tenplu maia batean jaiotzen hiltzen arteko bizitza kontatzen du. lehen hegaldia, lehen esperientzia sexualak, kaka egiteak eta ura edateak ematen dioten atsegina, harrak harrapatzeko teknika eta bizirauteko eguneroko borroka.

**“Cinema of Attractions. I, II, III”, Rachel Mayeri (2004, 00:04:00)**

“Cinema of Attractions” saila bideoklip txikien bilduma da; web zientifikoetatik eta Rachel Mayeriren laguntzaileen, hala nola Michael Dickinson eta Michael Elowitzen ekarpenetatik bildu dira eta Joe Milutisen musika daukate.

“Soft Science” reúne una colección de vídeo-curiosidades, creadas por artistas y científicos, y seleccionadas por la artista Rachel Mayeri. La selección se inspira en la idea de que el discurso de la ciencia también puede -y debe- ser analizado como una narrativa, es decir, como un constructo cultural o como un imaginario en el que lo objetivo se mezcla con lo subjetivo, lo científico con lo cultural y la realidad con la ficción. Los vídeos aquí recopilados, sobre genética, farmacéutica o ecología, ofrecen puntos de vista y metodologías inusuales, que por lo general no se encuentran en los medios de comunicación de masas.

El enfoque estético y conceptual de “Soft Science” se sitúa de manera consciente en las antípodas del género de los documentales de divulgación científica exhibidos en las salas de cine o en la televisión. Tras su aparente racionalidad, ese tipo de producciones audiovisuales también son el fruto de posturas predeterminadas sobre el mundo, el progreso y el entorno, con grandes dosis de narrativa,

posproducción y elementos ficcionados. La selección de Mayeri cuestiona así mismo el campo actual del *sci-art* (los experimentos creativos de intersección entre el arte y la ciencia) y su tendencia a idealizar los desarrollos científicos y tecnológicos anulando toda perspectiva crítica sobre los mismos.

Rachel Mayeri es artista, comisaria y profesora de Media Studies en el Harvey Mudd College en California. Sus obras, en formato vídeo o en instalaciones, exploran el cruce entre la ciencia, el arte y la sociedad y han sido expuestas en el Pacific Film Archive (Berkeley, California), el P.S.1/MOMA (Nueva York) y el ZKM (Karlsruhe, Alemania), entre otros. Entre sus últimas piezas de vídeo figuran “*The Anatomical Theater of Peter the Great*” (1999), animaciones para “*Biospheria: An Environmental Opera*” (2001) y “*The Electropathic Sanitarium*” (1992).  
<http://www.soft-science.org/mayeri.html>

\*\*

### **“Soft Science”, Rachel Mayeri (2004, 115min, V.O. Inglés)**

Estos son los vídeos recopilados en “Soft Science”. Puedes visionarlos todos seguidos o seleccionar la pieza que deseas en el menú general del DVD.

#### **“It Did It”, Peter Brinson (2000, 00:17:00)**

